## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 7157

IRAGARKIA, Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen 2007ko azaroaren 29ko Ebazpena jakinarazteko dena. Ebazpen horren bitartez, herri-ikastetxeetan Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (1. eta 2. zikloak) ikasleentzako eskola-garraiorako banan-banako diru-laguntzetarako deialdia ebatzi zen (2007-2008 ikasturtea).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren bitartez (2007ko irailaren 14ko EHAA), batetik, erabili beharreko irizpideak arautzen ziren, eta, bestetik, deialdia hedatu egiten zen, hain justu ere aginduan bertan zehazten den mailako ikasketak egiten dituzten ikasleetara.

Lurralde historikoek egindako proposamenak azterturik, eta aipatu deialdian finkatutako irizpideak erabiliaz, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak honako hau ebatzi du:

***Lehenengoa.***– Hiru lurralde historikoetako ikasleei laguntza ematea, hain justu ere, deialdiko betekizunak konplitu dituztenei, hartarako 1.212.440,85 euro erabiliaz.

***Bigarrena.***– Laguntza hau eman eta ukatzen zaien eskatzaileen zerrendak argitaratzea, dagozkion lurralde ordezkaritzako iragarki-oholean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen eta, ondorioz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari zuzenduta. Horretarako epea iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunearen biharamunean hasi eta hilebetekoa izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 30a.

Administrazio eta Dirubideen zuzendaria,
VIRGINIA GALARRAGA VARELA.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 7157

ANUNCIO por el que se da publicidad a la Resolución de 29 de noviembre de 2007 del Viceconsejero de Administración y Servicios por la que se resuelve la Convocatoria de Asignaciones Individualizadas de Transporte Escolar para alumnos que cursen estudios de Educación Infantil (2.º ciclo), Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria (1.º y 2.º ciclos) en centros públicos durante el curso escolar 2007-2008.

Por Orden de 11 de julio de 2007 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 14 de setiembre de 2007), se regulan los criterios a aplicar y se extiende la convocatoria para el alumnado que curse el nivel de estudios especificado en la misma.

Estudiadas las propuestas de los distintos Territorios Históricos y aplicando los criterios establecidos en la mencionada convocatoria, el Viceconsejero de Administración y Servicios ha resuelto:

***Primero.***– Conceder ayuda a los alumnos de los tres Territorios Históricos que hayan cumplido los requisitos de la convocatoria, por un importe total de 1.212.440,85 euros.

***Segundo.***– Ordenar la publicación de los listados de los solicitantes a los que se les estime y desestime esta ayuda en el tablón de la Delegación Territorial correspondiente, al día siguiente al que se de publicidad a esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la citada resolución que no agota la vía administrativa podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 2007.

La Directora de Administración y Gestión Económica,
VIRGINIA GALARRAGA VARELA.